



TEATRO  
ARRIAGA  
ANTZOKIA

## Perico Sambeat jazz saxofonista ospetsuak flamenkoan murgiltzeko errepertorio originala eskainiko du boskote formatuan

- Perico Sambeat Flamenco Quintet taldearen emanaldia bihar izango da, abenduaren 15ean, 19:00etan.
- Kontzertu hau Bilbaína Jazz Clubek eta Arriaga Antzokiak bultzatutako "BJC Arriagan" zikloaren parte da.

**Bilbo, 2020ko abenduaren 14a.**-Bilbaína Jazz Clubek eta Arriaga Antzokiak bultzatutako "BJC Arriagan" zikloak denboraldiko bigarren hitzordua izango du bihar, abenduaren 15ean, 19:00etan. **Perico Sambeat** saxofoi altu jotzailearen emanaldia izango dugu Arriaga Antzokian; mundu osoan da ospetsua, jazz musikari garaikide handienetako bat izateaz gainera.

Musikari valentziarrak, **Perico Sambeat Flamenco Quintet** izenarekin, goi mailako musikari espainiarrak biltzen dituen boskotea aurkeztuko du. Horrela, pianoan **Albert Sanz**, baxuan **Miguel Álvarez**, kaxoian eta baterian **Sergio Martínez** eta baterian **Tico Porcar** arituko dira. Elkarrekin, konposizio originalen errepertorioa eskainiko dute, buleria, tanguillo, alegría eta seguirillen bidez flamenkora hurbiltzeko bide berriak jorratuz. Eraitza jazz eta flamenko musiken arteko konbinazio zorrotz eta berria da.

Perico Sambeat ospe handiko musikaria da. Ibilbide emankorrean hogeit hamar disko baino gehiago plazaratu ditu taldeburu gisa, eta ehundik gora laguntzaile gisa. Azpimarragarriak dira beste artista handi batzuekin batera egin dituen lanak, hala nola Brad Mehldau, Kurt Rosenwinkel, Tete Montoliu, Michael Brecker, Pat Metheny eta beste askorekin.

Bilbao Jazz Clubek eta Arriaga Antzokiak 2021ean "BJC Arriagan" zikloa garatzen jarraitzeko asmoa dute, baina oraindik ez dituzte datak eta artistak baieztatu. Gogoratu behar da zikloa urriaren 6an hasi zela Marco Mezquidarekin eta bihar Perico Sambeat izango dela bigarren emanaldiaren protagonista.

### **ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK**

- 21 euro (beherapenekin)
- Salgai [www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus) helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:  
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA  
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307  
[comunicacion@teatroarriaga.eus](mailto:comunicacion@teatroarriaga.eus)

[www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus)